

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Vitoria-Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdia ebaztea

2021eko maiatzaren 24an onetsi zuen Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko dirulaguntza-deialdia.

2021eko ekainaren 9an argitaratu ziren ALHAOn —63. zk— Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdiaren oinarriak eta Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko zuzendaritza-kontseiluak 2021eko maiatzaren 24an hartutako erabakiaren laburpena, zeinen bitartez Gasteizko udalerriko hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntza-deialdia egin baitzen.

2021eko irailaren 16an bukatu zelarrik eskabideak aurkezteko epea, hauek izan ziren aurkeztu zirenak:

ESKATZAILEA	AURKEZTUTAKO KOSTUA, GUZTIRA
"Basalburu", Salburuko baso jangarrien elkarte	1.087,65 euro
Zabalortu Kultur Elkarte	3.475,13 euro
Ekoburuz kultur elkarte	710, 50 euro

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko ebaluazio-organoak honako ebazpen-proposamena egin du oinarrietan adierazitako esleipen irizpideei jarraituz.

ERAKUNDE ESKATZAILEA	DIRULAGUNTZARI DAGOZKION KOSTUAK	EMANDAKO DIRULAGUNTZA (EHUNEKO 80,00) (GEHIENEZ 3.500,00 EURO)
"Basalburu", Salburuko baso jangarrien elkarte	1.087,65 euro	870,12 euro
Zabalortu Kultur Elkarte	3.475,13 euro	2.780,10 euro
Ekoburuz kultur elkarte	710, 50 euro	568,40 euro

Ikusirik Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren estatutuak —2006ko apirilaren 5eko ALHAO, 40. zk—, ikastegiko lehendakariak hauxe:

Ebatzi dut

Gasteizko udalerrian hiri-nekazaritza ekologikoko ekimen komunitarioak egiteko dirulaguntzetarako deialdiari dagozkion zenbatekoak ordain daitezzen onestea, Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren aurrekontuko 2021/0110.1722.471.07 partidaren kontura.

Ebazpen honek agortu egiten du administrazio-bidea, eta, beroren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 14an

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko Lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA